tolosaldeko eta leitzaldeko
# hitza
Harpidedunei banatua ▸ Igandea ▸ 2004-11-14 ▸ II. urtea ▸ 456. zenbakia

**TOLOSA ▸**

## Gazteek gune berria dute zabalik



Atzo inauguratu zuten Kultur Etxeko gela ▸ 6

# David Dumall eta Dina Mendikute izan dira Rolleski Igoeran irabazle

**PARTE-HARTZEA ▸** 64 parte-hartzaile izan ziren guztira; gustura ziren Alpino Uzturrekoak

**BI SAIL ▸** Dumallek eta Mendikutek irabazi zuten klasikoan; 'skating'-ean, Rojok eta Lopezek ▸ 7



Kirolariak, atzo arratsaldean, Hernialdeko bentaren pare horretan, proba hasi aurretik. JAIONE ASTIBIA

HITZA



## Herri giro ederrean ospatu dituzte amasarrek jaiak

**AMASA ▸** Haurren krosa eta sega apustua izan ziren atzo goizean; bazkalostean eman zuten gazteek sorpresa, ekitaldi anitzekin ▸ 6

LANDARRI, S.L
Hilerrien ustiapena eta kudeaketa
Kanposantuko Lanak
- Ehorzketak
- Lurpetik ateratzea
- Gerakinen lekualdatzea
- Gerakinen errausketa
- Errausketa zerbitzua
- Hilerriaren proiektuak
- Hilerriaren eraldaketak
- Eraikuntza ezberdinak
- Hilobien apainketa
- Hilarriak
- Panteoiak
- Hilobiak
- Estelak
- Fotozeramikak
- Estanpaziozko teknikak
Santa klara, 1 behea - TOLOSA
Tel./faxa: 943 67 01 14 • Zerbitzu iraunkorra: 610 552 552
Bidasoa, 9 behea -ORERETA- ERRENTERIA
Tel.: 943 34 04 67 • Faxa: 943 51 31 41
www.landarri.com • landarris.l@terra.es

**TOLOSALDEA ▸**

## Suspertuz doaz dantza taldeak eskualdean

Udaberri, Oinkari eta Alurr, lanean ▸ 4-5



www.landrover.es
FREELANDER BERRIA
NATURAZ GAINDIKO SEGURTASUNA
• 4x4 trakzio iraunkorra
• ABS + Balaztatze Presioaren Banaketa Elektronikoa (EBD)
• Trakzioaren Kontrol Elektronikoa (ETC)
• Aldapak Jaisteko Kontrola (HDC)
• Azken belaunaldiko motorrak
EUROLAN 4x4
Donostia-Hernani errepidea (Galarreta ondoan)
Telefonoa: 943 33 10 06 • www.eurolan4x4.com
Freelander Td4 manuala. Kontsumo konbinatua 7,6 l/100 km. $CO_2$ Isurketak : 205 g/km



UZTURRETIK ▸ **JOXAN ORMAZABAL**

# Txaloak, txaloak, txaloak

Lehengo batean, kalean nindoala, aspaldian ikusi gabeko gizon edadetu batekin topo egin nuen. Pausoa makal ematen zuen, eta tristura nabari zitzaion aurpegian.

—Zer moduz bizi zara?, galdetu nion esku emanda.

—Gaizki, erantzun zidan. Oso gaizki.

—Osasunez pattal samar, ala?

—Ez, daukadan adinerako ez zeukaat hain osasun txarra; badiat hori baino arazo larriago bat, konpontzen zaila dena: bakardadea.

Zer esan behar nion nik? Berak esan zizkidan denak:

—Lehen bai, lehen jende asko ibiltzen nian inguruan bizkarra gozo-gozo igurtziz, gozoegi gauza onerako. Eta zenbat txalo plazara ateratzen nintzen bakoitzean! Eta ni orain ez nauk ezer haientzat. Txaloak haizeak eramaten ditik. Lehen banian dirua, banian ospea, eta jendea eulia eztitara bezala inguratzen zuan nigana; baina orain galdua diat ospe hura, eta miseria diat lagun, ez diat beste lagunik.

Kirol munduan oso ospetsua izan zen bere garaian orain hain bakarrik sentitzen zen agure hura. Zenbat txalo zaparrada jaso ote zituen? Hemen, Tolosan ere, asko.

Txaloak. Bai, pertsona hazi egiten dute txaloek. Adore eta indarra ematen dute. Droga bat bezala dira, ordea. Lehentxeago edo geroxeago txalo horien oihartzuna isildu egiten da.

Gai honekin zerikusia daukan beste gauzatxo bat orain. Badago *Aho bizarrik gabe* izeneko liburuan Lazkao Txikiri buruz Imanol Lazkanok idatzitako pasadizo bat. Hunkigarria, tristea eta gogorra iruditu zitzaidan niri irakurri nuenean. Lazkao Txikik, hainbeste txalo jasotako pertsona ospetsuak, bere bakardadearen berri eman zion behin bere bertso-lagun Imanoli. Merezi du irakurtzea.

Eta zuk jo txalo merezi duenari. Eta zeuri jotzen badizute, pentsatu txalo horiek arbolako hosto dantzariak bezala direla, udazkenean orbel bihurtuko direnak.

**KOMIKIA** ▸ GORKA SALABERRIA




**AIMAR AGIRRESAROBE** ▸ TRIATLETA

# «Jende asko ezagutzeko aukera eskaini dit triatloiak»

## Duela bi denboraldi hasi zen triatloian Aimar Agirresarobe tolosarra; hortik ez dela biziko dio, baina gustuko afizio du

LEIRE MONTES

Irribarretsu eta adi erantzuten die galderei. Mutil argia dirudi, eta erantzunak ere argi ditu. Umiltasunez hitz egiten du: «Zergatik niri? Ni baino hobeak badaude! Elkarrizketa honek jende gehiago animatzeko balio badu behintzat...».

**Zer izan nahi zenuen txikitan?**

Futbolean jokatu izan dut beti. Txikitan talde kirola duzu gustuko, bakarkakoa baino nahiago nuen nik behintzat. Baina lesioak zirela medio, eta Arrasatera ikastera joan nintzela eta, utzi egin nuen. Triatloiaren berri banuen, eta probatzea bururatu zitzaidan. Krosetan, Behobian eta abar parte hartzen hasi nintzen. Duela hiruzpalau urte, Tolosaldeko Triatloi Taldeko bilera batera agertu nintzen. Horrelaxe hasi zen guztia.

**Korrika egiteko, negua ala uda nahiago?**

Neguan triatloi zuriak izaten dira, baina nik ez dut horietan parte hartzen. Otsailetik maiatzera bitarte duatloien garaia da, eta maiatzetik hasita eta uda amaitu arte triatloiena. Ni duatloian hasi nintzen, eta gero triatloira pasatu nintzen. Orain, udazkena, forma hartzeko garaia da: korrika egin, gimnastika... Abendu inguruan gehiago aritzen naiz bizikletan, eta gero denetik nahasten hasten naiz. Igerian, berriz, urte osoan aritzen saiatzen naiz.

**Triatloilari bat parrandazale izan al daiteke?**

Nik ez dut parranda asko egiten, baina egiten ditudanak onak izaten dira... Badago parranda eta entrenamenduak bateratzerik; baina niri, behintzat, oso gogorra egiten zait.

**Hori guztia kontrolatu ahal izateko aritzen al zarete entrenatzaile batekin?**

Duela bi urte hasi nintzen Ramon Elkoro entrenatzailearekin. Argi dut ez naizela triatloitik biziko. Ni baino askoz hobeak daude, baita Tolosan ere. Gainera, afizio da niretzat. Baina fundamentu handiagoarekin egin nahi nuen prestaketa, eta horregatik hasi nintzen entrenatzaile batekin. Urte hartan oso ondo aritu nintzen 23 urte azpikoen mailan; harrezkero gustura aritu naiz, eta horregatik jarraitzen dut harekin.

**Hainbeste sakrifiziok merezi al du?**

Une batzuetan gogorra egiten zait, eta hainbat gauzari uko egin behar izan diot askotan. Baina dena ondo ateratzen zaidanean ahaztu egiten zait hori. Zailena mantentzea, jarraitzea da; baina, orokorrean, gustura sentitzen naiz. Merezi du, bai, bestela ez nuke jarraituko.

**Triatloi proba bat aukeratu beharko bazenu?**

Lehendabizikoa ez, behintzat. Orain barre egiten dut, baina nahiko penagarria izan zen: neoprenoko jantzirik ez nuen eta hotz izugarria pasatu nuen, bizikletaren gurpila zulatu egin zitzaidan, etxean ahaztu nituen zapatilak... 2003an izan zen, Gorlizen (Bizkaia). Urte bereko beste proba bat bai aukeratuko nuke: Euskadiko Selekzioarekin aritu nintzenekoa, 23 urte azpikoetan, Espainiako Txapelketan. 3. sailkatu nintzen taldean; karrera berezia izan zen benetan.

**Gaur korrituko den Behobian parte hartu izan duzu. Duen sonagatik proba horretan parte hartu eta urte osoan besterik egiten ez duen jende asko omen dago...**

Sentsazio hori badut, bai. Baina lasterketa berezia da, herrikoia; bidean etengabe duzu jendea animatzen, parte-hartze handia du... Azkeneko bi urtetan nik ez dut korritu, baina lagunak ikustera joaten naiz, eta giro paregabea izaten da.

**'Burnigizona' izan nahi?**

Horrelakoetan inoiz ez da ezetz erantzuten. *Ironman* proban parte hartzea ez dut helburu oraingoz, oso urruti ikusten dut. Baina... batek daki!

**Ba al dago triatloiarekiko afizioa Tolosan?**

Afizioa badagoela uste dut, eta maila oneko jendea aritzen da. Baina egitura, jendea bilduko

WEBGUNETIK

## Zer egingo zenuke Leidor zineman?

Tolosak behar du kultur jarduerak (kontzeruak, antzerkia, hitzaldiak, errezitaldiak) egiteko areto on bat; berriz ere, antzeko egiturari eutsiko nioke, baina eserlekuak eta akustika hobetuz. Noski, kultur agenda sendoarekin osatu beharko litzateke pausoa.

ANBROXIO

Eszenatoki handi bat behar da Tolosan abesbatzak, antzerkiak eta kontzertu jendetsu batzuk izaten direlako, baina beste bat txikiagoa ere bai, formato txikiko ikuskizunentzat. Ni ez naiz ingeniari edo arkitekto, baina oso zaila al da Leidor zinema berean bi aretoak egitea, 800 eserlekuko areto handi bat eta 250 eserlekuko beste areto bat? Ez dut uste ezinezkoa denik.

XABI ▸ TOLOSA

Durangon ireki berri dute kafe antzoki bat. Eta Tolosaldean noizko? Bilbon, Ondarrun, Lasarten eta ez dakit non gehiago ere badiren. Zer dute besteek guk ez duguna? Badakit duela urte batzuk Galtzaundi hasi zela asmo horrekin, baina lokalen (Bar Cielo, Agustin-enea) prezioa ikusita etsi egin zuela. Herriko kultur taldeek Udalaren laguntzarekin ezin al dute zerbait egin?

TOMAX ▸ ALEGIA

Eta zertarako balio du kafe antzoki batek? Zera esan nahi dut... Zer egiten da kafe antzoki batean gaur egungo antzoki batetan egin ezin daitekeenik? Zarautzen, adibidez, Tramoia taberna *café-teatro* bat da, baina ez dakit egia esan zer abantaila dituen, edo horren garrantzitsua ote den Leidor bezalako areto bat hipotekatzeko.

BELARTXO

Bonbereneatik eredu ederra ari dira ematen. Kontzertuak, grabazioak, hitzaldiak, *skate* festak, *graffiti*ak, ikastaroak... Eta dena pezetarik kostatu gabe erakundeei! Ez al die lotsarik ematen? Aupa Bonberenea!

PITI ▸ TOLOSA

Lotsa ez... ze uste duzu baina, erakundeek zure aisialdia eta kultura ordaintzera derrigortuta daudela? Erakundeek inizitiba pribatuak betetzen ez dituzten biztanleen beharrak bete behar dituzte. Bonberenea proiektua existitzen bada, aisialdi behar hori beteta dago, hortaz erakundeek ez dute aparteko lanik.

BELARTXO

Nire ustez, zentro komertzial bat behar du Tolosak. Behintzat gazteok horren beharra dugu. Kulturgune bat jartzea ez dago gaizki, baina Tolosan Garbera bezalako bat behar da ahal bezain azkar. Zer dugu gazteok asteburutan egiteko bestela?

AITZOL

Merkatalguneen aurkakoa ez naiz, baina Kafe Antzoki bat lehenago ezarriko nuke Tolosan. Kafe Antzokian afaltzeko, kontzertuak entzuteko, txapelketak egiteko, antzerkiak ikusteko... aukera izango litzatekelarik.

MIREN ▸ IBARRA

Leidor zineman egokitze lanak besterik ez nituzke egingo: bere funtzioa betetzen segi dezala, zinema, antzerki eta kontzertu areto gisa. Abesbatzen lehiaketa kenduko balute hobe, ene uste apalean. Merkatalgunea? Onartzeak ere min ematen du, baina badirudi gure gazteek joera hori hartu dutela. Egunen batean jabetuko dira zein pobrea den gehien gustatzen zaiena: merkatalgune batean, kontsumituz, denbora pasatzen uztea. Baina alferrikakoa iruditzen zait inork haiek ezertara behartzea: merkatalgunea nahi badute, merkatalgunera joango dira Tolosan, Usurbilen edo Donostian. Baina pena dezente ematen dit horrek.

JOSETXO

Areto on bat behar du Tolosak, erosoa, egokitua eta zabala, zertarako eta zinema, antzerkia, hitzaldiak, errezitalak, eta abar egiteko. Ez litzateke ideia txarra kortina bidez zatitzeko aukera jartzea, gela txikiagoetan banatzeko behar denean: esaterako, enpresetako bilerak, kongresuak eta horrelakoak antolatzeko.

RAFAEL

Martxa falta da Tolosan, martxa. Beasain, Hernani, Ilunbe... baita Villabonan ere, Tolosan baino mugimendu handiagoa dago asteburuetan. Zergatik? Udalak zer egiten du hori ekiditeko? Tabernen ordutegia mugatu. A zer laguntza! Jendea herritik kanpora uxatzeko bai. Ea tabernariren bat animatzen den behar bezalako garagardotegia montatzen! Ibarran ere badute! Eta gero gauzak antolatu bertan: kontzertuak, proiekzioak, hitzaldiak, antzerkiak, erakusketak, mahai inguruak...

PILARTXO

Alferrik da hitz egitea. Ez dute ezer egingo. Udalaren eta tabernarien zain baldin bagaude... Jai! Guk antolatu behar!

TXEMA ▸ TOLOSA



LEIRE MONTES

PERTSONALKI

▸ Tolosan jaioa ▸ 1981ko martxoaren 7an ▸ Ingeniaritza industrialeko azken urtea egiten ari da, Arrasaten ▸ Kirola, mendia, lagunekin egotea... ditu gustuko

**Ura ala lurra?** Lurra, askogatik. **Igerian, bizikletan ala korrika?** Bizikleta nahiago, uste dut hor moldatzen naizela ondoen. Korrika egitea ere gustatzen zait. Igerian, berriz, orain ari naiz gozatzen; lehen oso txarra nintzen, orain, behintzat, erlaxatu egiten nau.

HELMUGA



«Egunean egunekoa bizitzea gustatzen zait; ez diot etorkizun urrunari begiratzen, epe luzerako planak ez ditut gustuko»

duen talderik falta da, eta talde hori erreferentzia bihurtzea. Guztiak animatu nahi nituzke kirol hau probatzera, eta denok batera, giro hori sortzera.

**Zer eman dizute triatloiak eta kirolak?**

Jende asko ezagutzeko aukera eman didate. Besteengandik eta neure buruarengandik asko ikasteko parada ere bai. Forma fisiko onean nagoenean oso kontent sentitzen naiz neure buruarekin. Eta entrenatzen, bakarrik nagoenean, denbora asko daukat pentsatzeko.

**Erraz itotzen al zara arazoen aurrean?**

Saiatzen naiz beti arazoei aurre egiten. Batzuetan ez da erraza ez itotzea, baina igerian egin behar da.

**Nora egingo zenuke ihes?**

Ez naiz oso urruti joatekoa. Gustatu egiten zait kanpora joatea, baina epe baterako; eta itzuli. Etxea beti etxe.

**Zein da zure helmuga bizitzan?**

Maite dituzunak gertu izatea, lana, etxebizitza, gustura egotea... ohiko gauzak. Egia esan, ez naiz serio jartzen horretan pentsatzen. Egunean egunekoa bizitzea gustatzen zait. Ez diot etorkizun urrunari begiratzen, ez ditut gustuko epe luzerako planak.

DANTZA ▸

# Suspertuz doa dantza berriro

## Tolosako Udaberri, Ibarrako Alurr eta Villabonako Oinkari dantza taldeek elkarrekin eskainiko duten jaialdia aitzaki hartuta, atzera egin, eta hiru dantza taldeetako historia bildu du HITZAk, labur-labur

IRATXE ETXEBESTE

Dantzari asko egon omen dira betidanik Tolosaldean, garai batean edonork hartzen zuelako parte hango eta hemengo dantza taldeetan. Horixe diote oraindik ere eskualdean gidari jarraitzen dutenek. Beherakada handia izan zuten urte gutxian, ordea, ezkontzerakoan utzi egiten ziotelako dantzariek dantzatzeari. Egun beste arrazoi batzuk daude horretarako: kanpora ikastera joateagatik, edo, besterik gabe, askotariko kirol eskaintzak tarteko, asko dira azken urteetan dantza taldeetatik urrundutakoak. Hala, «dantza asko gustatzen zaienek soilik jarraitzen dute asteroko-asteroko entseguetara joaten», eta horietako gehienak neskak dira, gainera.

Izan ere, azken bi-hiru urteetan eskualdeko dantza talde batzuk indartu egin badira ere, mutil falta ikaragarria da denetan. Antza, aukeraketa egiterakoan futbolaren eta judoaren gisakoak nahiago izaten dituzte mutikoek, eta dantza taldeak osatzerakoan eragin handia du horrek, asko eta asko direlako neskak baino ez dituzten taldeak. Orain urte dezente sortutako mutil dantza ugari galtzeko bidean dira, horregatik.

Kontuak kontu, eskualdeko hiru dantza taldek, Tolosako Udaberrik, Ibarrako Alurrek eta Villabonako Oinkarik, dantza jaialdia eskainiko dute hil honen 20an Tolosan, eta ekitaldi berezi hori aitzaki hartuta, bertako arduradunekin hitz egin du HITZAk, Tolosaldean dantzaren egoera zein den jakiteko, eta, bide batez, dantza talde bakoitzaren nondik norakoen berri zuei emateko.


**Udaberri.** Tolosako dantza taldekoak, 2001eko abuztuan Portugalera egin zuten bidaian. UDABERRI


**Oinkari.** Villabonako dantza taldeko kideak, aurten herrian eman dituzten bi jaialdietako batean. OINKARI


**Alurr.** Ibarrako dantza taldeko partaide batzuk, abuztuan, San Bartolometako jaialdian dantzan. ALURR

### Udaberri, mende erdirantz

Euskal Herriko talde zaharrenen artean, historia luzearen jabe da Udaberri Euskal Dantzari taldea, 1957an sortua. Xabier Galdona eta Xalbador Garmendia sakramentinoek inguruko mutil talde bat hartu eta hala hasi ziren euskal dantzak haiei erakusten. Hasiera batean, dantza horiek ezagutzera ematea zuten helburu, Frankismoaren latzenean, «gure kultura, errepresio eta debeku gogorrenen pean, zulo ilun eta sakon batean baitzen; bazter guztietatik sortzen ari zen argiharien isla zen, euskal kulturaren berpizkundearen beste adar bat, beste bide bat, zulotik irteteko ahaleginean».

Taldea bermatzen eta sendotzen ari zelarik helburu berriak diseinatuz joan ziren Udaberriko kideak: musika landu, jantziak zaindu eta dantzak jatorrizko tokian ikasita plazaratu, betiere tradizioari ahalik eta leialen izanda. Horrekin batera, ikerketaren bideari ere ekin zion Udaberrik. Horrela berreskuratu, erakutsi eta gaur arte mantendu ahal izan dira hainbat dantza: hala nola, Berastegiko San Juan dantzak, Gipuzkoako Soinu Zaharrak eta Tolosako *Bordon Dantza*, tartean Bedaioko *Ingurutxoa*-ren inguruko lan bat eginez, eta behar zuen bultzadatxoa emanez.

Gerora etorri ziren bidaiak: besteak beste, Herberehetan, Irlandan, Suitzan, Belgikan, Italian, Txekoslovakian, Austrian, Hungarian, Alemania Demokratikoan, Portugalen eta Espainian izan dira Udaberrikoak dantza emanaldiak eskaintzen, bai eta Katalunian eta Galizian ere. 90. hamarkada ikuskizun berezien garaia izan zen, eta erronka berriak hartu zituen taldeak; *Xirulikan*, *Iruditan* eta *Erromeria* izan dira emaitzarik esanguratsuenak. Larunbatetako haur ikastaroetan 30 bat lagun dira egun, eta Udaberriko dantzariak, berriz, 25 bat. Taldea bere 50. urteurrenari begira da, eta bienbitartean, taldearen biziraupena bermatuko duten gazte berriak bilatzen ahalegintzen da.

Zalantzarik gabe, Tolosako eta inguruko folklorean funtzio garrantzitsuak bete izan ditu dantza taldeak, eta egun ere horretantxe dihardu, «gure herriko kultur historian ezinbesteko direlarik». Aranzadi Zientzia Elkartearekin elkarlanean, Tolosako historia eta *Bordon Dantza*-ren azterketa biltzen duen lan bat argitaratu du aurten Udaberrik, duela 23 urte Jose Maria Jimeno Jurio historialariak idatzitakoa: *Tolosa Bordondantzaren ikuspegitik*.

### Oinkari, ia 30 urte lanean

Oinkari dantza taldea 1975ean sortu zen Villabonan, Euskal Herriko dantzak jaso, ikasi eta erakusteko helburuarekin. Elizan kantatzeko biltzen ziren gazte haiek eman zuten lehen pausoa dantza taldearen sorreran, Zizurkilen dantza irakasten aritzen ziren Segurola ahizpen gonbita aintzakotzat hartu ostean. Hasierako urteetan 60 bat gazte biltzen ziren Zentroaren gaineko La Sala zeritzan gazte lokalean. Gerora, gela hori utzi eta Zatorran ekin zioten entsegatzeari. Dantza ikasteaz gain, ekintza gehiagotan ere parte hartzen zuten: garai hartan euskararen aldeko mugimendua puri-purian zegoen, eta dantza taldeak beti erakutsi zuen atxikimendua.

1976ko maiatzean Parrokiko Elkarteak dirua biltzeko Gurea zineman antolatu zuen jaialdian egin zuen estreinaldia Oinkari dantza taldeak. Harrezkero inguruko hainbat herritan eskaini zituen emanaldiak: Atallon, Lizartzan, Tolosan, Iruran, Adunan, Sorabillan, Zizurkilen, Urretxun...

Urtetan aritu ziren lanean, dantza ikasi eta eskaintzeaz gain emanaldietarako arropa eta bestelako materiala prestatzen. Diru falta medio, astero 25 pezetako kuota ordaintzen zuen taldeko partaide bakoitzak, taldearen diru iturri nagusia horixe izanik. Sortutako herri mugimendua ez zen nolanahikoa izan, gazte gehienak zeudelako talde baten baitan.

1977an hasi ziren Oinkarik antolatutako eta haurrei zuzendutako ikastaroak. 1979an, taldeko hainbat mutil soldadutzara joaten hasi zenean, jarri zen lehen aldiz kolokan dantza taldearen etorkizuna. Hala ere, aurrera egin zuen, saio gehien eman zituzten urtea izateraino. Gerora ahulduz joan zen taldea, partaide askok utzi egin ziotelako bertan dantzatzeari. Giro horretan, 1983ko abuztuaren 24ean izandako uholdeek udaletxe zaharreko gela batean biltzen zituzten arropak eta gainerako tresnak hondatu zituzten, eta dantza taldeari bukaera ematea erabaki zuten taldeko lehen partaideek.

Urte batzuk beranduago, 1992ko herriko jaietan Iñude eta Artzainen konpartsa antolatu zuten Oinkariko kide batzuk; konpartsa hori izan zen Oinkari dantza taldeko hurrengo belaunaldia, bigarrena, abian jarri zuena, astearte eta ostegun iluntzetan, Kultur Etxeko gela hasieran, Ikastolako ganbara gero, dantzarako doinuz eta alaitasunez jantzi zuena. 1997ko irailean jarri zituzten berriz ere abian haur ikastaroak, eta horiei esker Oinkari dantza taldeak ordura arte jasandako dantzari faltari aurre egitea lortu zuen.

1992an lanean jarri zen belaunaldi horretatik aurrera ez du beste etenik izan Oinkarik. Dantzari belaunaldi ugari pasatu dira bertatik, eta pixkanaka oztopoak gailenduz eta taldea sendotuz joan dira. Iaz, taldearen etorkizunean eragin nabarmena izan zuen erabakia hartu zuten Oinkariko kideek: betiko dantza tradizionalak albo batera utzi gabe, koreografia berriak lantzea. Oinkarik egun bere emanaldietan eskaintzen dituen dantza gehienetako koreografiak Edu Muruamendiarazenak dira; hark gidatzen ditu taldeko entseguak. 15 eta 27 urte bitarteko 38 dantzariz osatuta dago taldea, neskak gehienak, eta emanaldietan 13 musikari izaten dituzte alboan. Haur ikastaroetan, berriz, 80 bat dira: 12 urtetik beherakoak, denak.

**UDABERRI**

**Tradizioari ahalik eta leialen izanda joan dira helburu berriak diseinatzen: musika landu, jantziak zaindu...**

**OINKARI**

**Iaz, betiko dantza tradizionalak albo batera utzi gabe, koreografia berriak lantzea erabaki zuen**

**ALURR**

**Beste norabide bat hartu du taldeak, baina helburuak hasierakoak dira: ikastea eta herriko taldea mantentzea**

### Alurr: berriena, berritzaileen

1992an hasi ziren Ibarran dantza ikastaroekin. Jose Luis Zubeldia abaltzisketarrak 40 orduko ikastaro bat eskaini zuen, herritarrek *Arin-arina* eta *Fandangoa* ikas zezaten. Taldetxo bat sortu zen orduan, eta bestelako dantzak ere ikasteko gogoa piztu zitzaien. Zubeldiak Jesus Mari Garate beasaindarra ekarri zuen horretarako. Jose Luis Zubeldiak berak sortutako taldearen ardura haren anai Jon Zubeldiak hartu zuen gero, urtebetez. Ondoren, Eider Garmendia beasaindarra aritu zen dantza eskolak ematen.

1995eko abenduaren 4an legeztatu zuten Alurr dantza taldea. Herrian eskaintzen zituen ikuskizun gehienak, eta herritik kanpo, Tolosaldean ere, dezente. Duela lau urte beherakada handia izan zuen, gazte batzuk unibertsitate ikasketak egitera kanpora irten behar izan zutelako. Haiek ematen zuten ordura arte taldea: ikastaroak, emanaldiak...

Taldea desagertzear zegoela ikusita, Ibarrako Sendi Ekintza guraso elkarteak hartu zuen Alurr dantza taldeko gidaritza. Dantza taldean ibilitako gazte guztiei deia egin, eta batzarra egin zuten etorkizunean zer egin erabakitzeko. Gazteek berrikuntza nahi zutela-eta Edu Muruamendiarazi hots egin zioten, dantza eskolak eman ziztan. 13 laguneko taldearekin hasi zen orain hiru urte, eta 80 gazte gidatzen ditu egun dantzari bergararrak. Beste norabide bat hartu zuen dantza taldeak orduan, baina helburuak hasierako berak dira: euskal dantzak ikastea eta zabaltzea, dantzatuz ondo pasatzea, eta, batez ere, herriko dantza taldea bizirik mantentzea.

Harrezkero dantza saioak eskaini ditu Alurrek Txantrean eta Lesakan, eta Alemaniara joateko aukera ere izan du berriki. Gainerako ikuskizunak herrian bertan ematen ditu: urtean bitan edo hirutan bai, gutxienez. Uzturpe ikastolaren Kultur Astean, Izaskun auzoko jaietan, Ibarrako Gazte Festetan, Hauspoak bi urtetik behin antolatzen duen jaialdian... Haurrek eta helduek badituzte urtean ikuskizun finkoak, baina Alurr dantza taldearen ikuskizun garrantzitsuena San Bartolome jaien baitan eskainitakoa da, abuztuan. Herriko jai nagusietako emanaldi arrakastatsuena eta desiatuena izateaz gainera, ikus-entzule gehien biltzen dituena ere izan badelako.



## HILAREN 20AN, DANTZA JAIALDIA ▸

Tolosako Babarrun Astearen baitan, dantza jaialdia eskainiko dute Tolosako Udaberri, Ibarrako Alurr eta Villabonako Oinkari dantza taldeek datorren larunbatean, hilak 20. Elkarlanean ari dira eskualdeko hiru dantza taldeak emanaldia prestatzeko. Beotibar pilotalekuan izango da ikuskizuna, 22:00etan hasita.

### PARTE-HARTZAILEAK

**Dantzariak.** Udaberri, Alurr eta Oinkari dantza taldeetako 120 bat dantzari ariko dira jaialdian guztira; 13 urtetik gorakoak denak.
**Musikariak.** Guztira, 25 bat musikarik jardungo dute. Oinkarikoak dira horietako 13 —herrikoak batzuk, eta besteak kanpokoak—: «Profesional jendearengana jo behar izan dugu, eta egiten duten lana ordaindu egiten diegu», esan du Oinkariko arduradunak. Alurr-ekoak 8 dira: Ibarrakoak gehienak, eta herrikoak ez direnak Tolosaldekoak. Horietako batzuk profesionalak dira, eta gainerakoak musika munduan eskarmentu handikoak. Eta Udaberrik, berriz, 5 musikari eramango ditu jaialdira: Tolosaldekoak horiek guztiak, eta dantza talde horrekin urte askoan aritutakoak. Dantzariek eskainiko dituzten dantzen doinuak ez ezik, haiek prestatutako piezak ere joko dituzte hiru taldeetako musikariek.
**Aurkezleak.** TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAko zuzendari Joxemi Saizarrek eta egunkari horretan kazetari jardundako eta egun ETBko albistegietan diharduen Oihane Malkorrak aurkeztuko dute datorren larunbateko jaialdia.

### IKUSKIZUNA

**Dantzak.** Guztira, 19 dantza eskainiko dituzte hiru dantza taldeetako partaideen artean. Udaberrik hiru dantza eskainiko ditu, Oinkarik bederatzi eta Alurrek zazpi. Tradizional hutsetik hasi, eta berrikuntzaraino: Udaberrik dantza tradizionalak eskainiko ditu, Oinkarik dantza tradizionalak eta berritzaileagoak eta Alurrek erabat berritzaileak: finean, dantza tradizionaletatik abiatutakoak, koreografiatuak. «Helburua, ikus-entzuleari tradizionala eta berritzailea uztartzea zilegi dela erakustea da», hiru dantza taldeetako arduradunen hitzetan.

### LAGUNTZAILEAK

**Babesleak.** Tolosako Udalak eta Tolosako Babarrunaren Asteak lagundutako ekimena da dantza jaialdia. Bestalde, emanaldiko laguntzaile da, baita ere, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkaria.
**Jantziak.** Dantza talde bakoitzak bere jantziak eramango ditu, eta Oinkarik Añorgako Arkaitz dantza taldeko jantziak ere izango ditu emanaldi horretan. Hiru taldeetako jantzi gehienak Ramon Garciak eginak dira.
**Argiztapena eta soinua.** Akelarre musika taldeko kideak arduratuko dira eszenatokiko argiak eta soinua egoki izateaz.
**Muntaia eta koreografiak.** Edu Muruamendiaraz dantzari bergararrak egin ditu Alurren eta Oinkariren koreografiak. Ikuskizunaren muntaia ere bai.

**Promozioa eta eraikuntzak**
Bizkai kalea, 2 - behea
20400 TOLOSA
Faxa:943 69 71 98
Tel.: 943 67 21 72 - Mug.: 608 77 28 01


KIROLUNTZIKO PATROI IZATEKO (PER) IKASTAROAK AZAROAN
JAIZKIBEL ITSAS ESKOLA
OIARTZUN • 943 494739
www.nautica-jaizkibel.com

FORMAKUNTZA IKASTAROAK (Langileentzat) 2004/05
KUALIFIKAZIO PROFESIONALEN SISTEMA - KATALOGO MODULARRA

| IKASTAROA (KREDITO FORMATIBOA) | ORDUAK | HASIERA | ORDUTEGIA |
|---|---|---|---|
| - Finantza kudeaketa | 30 | 04-11-22 | 18-21 |
| - MARRAZKETA TEKNIKOA (Adierazpen-sistema arautuak) | 40 | 04-11-22 | 18-21 |
| - Automatismo elektroteknikoak | 40 | 04-11-22 | 18-21 |
| - PLC-SIEMENS (Oinarrizko automata programagarriak) | 35 | 04-11-22 | 18-21 |
| - Soldadura elektrikoa | 40 | 04-11-22 | 18-21 |
| - Fresadora konbentzionaleko mekanizazioa | 80 | 04-10-22 | 18-21 |
| - Torno konbentzionaleko mekanizazioa | 80 | 04-11-22 | 18-21 |
| - Sare lokal baten administratzea (Windows 2000 Server) | 70 | 04-10-25 | 18-21 |

Matrikula eta informazioa: Tel: 943 65 11 47 • Santa Luzia, 17 •20400 TOLOSA
E-mail: idazkaritza@tolosaldea.com • Web: www.tolosaldea.com

**TOLOSA** ▸ GAZTERIA

# Gazte Topagunea zabalik da jada

## Atzo egin zuten inaugurazio ekitaldia, perkusiojoleekin eta DJekin



Zozongo perkusio taldearekin hasi zen atzo ekitaldia. MADDI SOROA

M. SOROA

Tolosako Gazte Topagune berriak atzo zabaldu zizkien ateak eskualdeko gaztetxoei. Aisialdi dinamikoa eta alternatiboa garatzeko gunea da topagunea, lagunartean egoteko, lagun berriak egiteko, asmoak eta ideiak gauzatu ahal izateko... eta 13 eta 17 urte bitarteko gazteei zuzendurik dago. Bertan, tailerrak, ikastaroak edota proiekzioak bezalako ekintzak topa daitezke batetik; bestetik, berriz, mota ezberdineetako irteerak. Tolosako Gazte Topagunea sortzeko ideia duela bi urte inguru hasi zen. Harrezkero makina bat lan egin dute bertako antolatzaileek. Azkenean, ordea, atzo eman zitzaion hasiera hainbeste denboran itxarondako proiektu berriari.

Proiektu berri honi hasiera emateko, inaugurazio ekitaldia prestatu zuten antolatzaileek 16:30ean. Irekierarako, Zozongo perkusio taldearekin Tolosatik barna kalejira egiteko asmoa zegoen hasiera batean, baina eguraldi txarra zela eta, Zerkausian jo zuten azkenean. Eguraldi txarra bazen ere, gaztetxo mordoa inguratu zen Zerkausira. Dantzatzeko gogoz zeuden batzuk; lotsaz, ordea, beste batzuk. Hala ere, gustura eta irrifartsu ageri ziren guztiak; topagune berriak zer ekarriko ote zien pentsatzen ariko ziren, nonbait.

Zozongo perkusio taldearen konpasean, Gazte Topaguneko lokalera joan ziren ondoren, Kultur Etxeko azpialdera, hain zuzen ere. Beste pieza batzuk jotzearekin bat, topagunearen lokala erakutsi zitzaien bertara inguratutakoei. Lokala aurkeztearekin batera, bigarren musika emanaldiak hartu zuen txanda: DJ Sessionik, alegia. Haurrek musika biziaz gozatzen zuten bitartean, askari goxoaz gozatzeko aukera ere izan zuten. Tolosako Gazte Topaguneko lehen saioa gaur izango da, 16:30etik 20:30era. Bertan, jokoak eta tailerrak egiteko aukera izango dute gaztetxoek.

**AMASA** ▸ JAIAK

# Herri giroan amaitu dituzte jaiak Amasan

## Goizean krosa eta sega apustua egin zituzten; ondoren, bazkaria eta festa



Mazoak taldekoak herrikideentzat bazkaria prestatzen. HITZA

MADDI SOROA

Amasa jaietan murgildurik egon den honetan, bosgarren eta azken eguna bete zuten atzokoan. Krosarekin eman zitzaion hasiera festetako egun berri bati, izan ere, 10:30ean gaztetxoentzako krosa antolatu baitzuten herrian bertan. 120 haurrek hartu zuten parte, eta honako ibilbidea egin behar izan zuten: plazan hasi eta Arantzaldera, berriro ere plazara bueltatu, handik elizaldera joan, eta, amaitzeko, berriro ere plazara.

Adin ezberdinetakoak ziren lasterka aritutako 120 haurrak, eta denek ibilbide bera egin behar bazuten ere, ez zen bera izan guztiek egin beharreko itzuli kopurua. Izan ere, korrikalari gaztetxoek zuten adinaren araberako itzuli kopurua eman behar baitzioten antolatzaileek erabakitako ibilbideari. Parte-hartze handia ikusita, gustura agertu ziren antolatzaileak.

Haurren krosa amaitu bezain laster, sega saioek hartu zuten txanda 12:30ak aldera. Lehendabizi, Andoni Zubiarrainek, *Lizarra*-k, eta Mikel Arretxek, *Xandra*-k sega erakustaldia eskaini zuten, *Xandra* izan zelarik garaile. Bi baten aurkako erakustaldia egin zuten, berriz, Arkaitz Arretxek eta Jokin Etxeberriak Garikoitz Etxeberriaren aurka. Txanda librean aritu ziren gazteak izan ziren nagusi erakustaldi bitxi honetan.

Benetako apustua, ordea, Arretxe anaiek, Mikelek eta Arkaitzek, burutu zuten Etxeberria anaien, Garikoitzen eta Jokinen, aurka. Apustua, «saila txukunen eta azkarren nork moztu» izan zen, Garikoitz Etxeberriaren hitzetan. Segundu gutxigatik izan bazen ere, Etxeberria anaiak izan ziren azkenean garaile. Gauzak horrela, pozik geratu ziren Etxeberria anaiak txapela irabazita. Gustura agertu ziren ikuskizunaz gozatzera hurbildutako herritarrak ere.

Esan beharra dago, iaz baino jende gehiago izan dela sega erakustaldia eta apustua ikusten. Artean eguraldi txarra bazen ere, ez zuen euririk egin segalariak lanean aritu ziren bitartean. Hala sega erakustaldia nola sega apustua Harri baserriko zelaietan egin ziren.

Herriko giroarekin jarraituz, herri bazkaria antolatu zuen Mazoak taldeak, Horrela, adin guztietako 250 pertsona bildu ziren Amasako frontoian. 14:00etan hasi zen bazkaria, eta honakoa izan zen menua: hasteko, zopa; txekor gixatua, ondoren, eta azkenik, txekorra erreta. Postrerako, berriz, gazta eta irasagarra. Kafea pastekin eta pattarra dastatzeko aukera ere izan zuten herritarrek.

Bazkaria amaitzearekin batera, herriko gazteek sorpresa eskaini zieten frontoian bildutako lagunei. Lehenik eta behin, sei dantzarik *Agurra*, *Fandangoa* eta *Arin-arina* dantzatu zuten. Bi txalapartari aritu ziren ondoren herritarren belarriak goxatzen, eta azkenik, herritar batek kantatu zituen bertsoak dantzatu zituzten dantzariek berriz ere.

hitza lagunen txokoa

'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

HITZARI 42 euroko diru laguntza ematen dioten harpidedunek HITZA egunero jasotzeaz gain **ABANTAILA EZBERDINAK** izango dituzte; harpidedunen txartela izango dute eta, besteak beste, HITZAk egiten dituen zozketetan parte hartzeko aukera izango dute.

**HITZAren laguntzaile izan nahi baduzu, deitu 943 30 43 46 telefono zenbakira.**

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

AZOKA

## Eguraldi txarrak ez du aste honetan batere lagundu

«Euria ari duenean ez da erosle askorik gerturatzen», esan dute saltzaileek

PABLO ALBERDI

Negua gain-gainean dugu, eta Tolosako azokan nabarmen geratu zen hori atzokoan, beste behin, eguraldi txarrak ez zuelako salmentetan batere lagundu. Saltzaileak kexu ziren, euria ari duenean erosleak ez direlako azoka guneetara gerturatzen. Produktu eskaintza zabala izan zen, hala ere, ohi bezala.

### AZOKA

| Zerkausia | merk. | gares. |
|---|---|---|
| **Bertako produktuak** | | |
| Oilaskoa (3. ast.) | 1,50 | - |
| Oilaskoa (4. ast.) | 1,60 | - |
| Arkumea | 3,00 | 3,20 |
| Ahatea | 2,50 | - |
| Ziazerba | 1,00 | 1,50 |
| Kalabaza | 1,50 | 3,00 |
| Tomatea | 2,00 | 3,50 |
| Arrautzak | 1,30 | 2,10 |
| Irasagarra | 3,00 | 6,00 |
| Artoogia | 3,50 | - |
| **Produktu ekologikoak** | | |
| Patata | 1,50 | - |
| Sagarra | 2,00 | 3,00 |
| Azenarioa | 2,00 | 2,50 |
| Arroza | 1,90 | 2,00 |
| Dilistak | 2,40 | - |
| Tipula | 1,75 | 2,00 |
| Letxua | 1,00 | - |
| **Berdura plaza** | | |
| Lilia | 1,20 | - |
| Krabelina | 4,80 | - |
| Txilarra | 4,00 | - |
| Konifera | 6,00 | - |
| Perrexila | 0,05 | 0,06 |
| Azalea | 3,50 | 10,00 |
| Larrosondoa mini | 6,50 | - |
| Porrua | 2,40 | - |

ROLLESKI-A

# Bizi-bizi ekinez egin diote aurre kirolariek eguraldi kaskarrari

Aurtengo denboraldiko parte-hartzerik ugarienarekin, oso gustura agertu dira Alpino Uzturre elkarteko kideak



Hernialdeko Bentetan, mendateari ekiteko prest etorri ziren patinatzaileak. Belateik behera. J. ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Atzo arratsaldean burutu zuten Hernialdeko Rolleski Igoera laisterketa, eguraldi oso kaskarrarekin, baina giro eta umore ezinhobean. Egiten zuen hotzari eta euriari aurre eginez, antolatzaileek emandako datuen arabera, 64 lagunek parte hartu zuten bertan eta zein baino zein, erremitak hartu eta Tolosa Hernialderekin lotu zuten. Denboraldiko parte-hartzerik ugariena izan zen atzokoa, eta gustura ziren horregatik Alpino Uzturrekoak.

Bi sailetan egin zuten laisterkaldia: rolleski klasikoan batzuk eta *skating* moduan besteek. Hurrenez hurren, Dabid Dumall, Huesca-ko (Espainia) patinatzaileak irabazi zuen batean 14:42ko denborarekin, eta Joseba Rojo tolosarrak bestean, 5 segundu beranduxeago bakarrik. Aldea benetan oso ttikia izan zen, izan ere, kontuan hartu beharrekoa baita *skating* moduan patinatu zutenek, abiapuntua Tolosako Belate auzoan izan zutela, horrela Hernialdeko Bentatik atera zirenek baino —laisterketan klasiko eran parte hartu zutenak— 800 metro gehiago ibili behar izan baitzituzten. Horrela, atzetik ia harrapatu zuen beraz, Rojok Dumall.

Emakumezkoetan etxeko batek irabazi zuen: Dina Mendikute hernialdearrak. Honek klasiko eran lehiatu zuen. Erea Lopez ordiziarra izan zen garaile beste motan: *skating* delakoan, hain zuzen ere. Gaztetxoetan ere norgehiagoka bizia izan zen, guztiek ere denbora oso onak eginez.

Euskal Herri osotik eta atzerritik etorritako patinatzaileak, 54 urtekoa zen adintsuena, guztiak blai eginik iritsi ziren Hernialdeko mendatea igo ondoren herriko plazara, eta han, bertako elkarteak prestatu zieten askaria gustura asko hartu zuten, goseari eta nekeari baino, hezurretarainoko hezetasunari aurre egiteko.

### SAILKAPENA

**SKATING**

| Helduak. | |
|---|---|
| 1. Joseba Rojo | 14.47 |
| 1. Erea Lopez | 22.40 |
| **Gaztetxoak.** | |
| 1. Iñigo Macias | 15.56 |
| 1. Eneritz Gonzalez | 31.21 |

**KLASIKOA**

| Helduak. | |
|---|---|
| 1. Dabid Dumall | 14.42 |
| 1. Dina Mendikute | 18.11 |
| **Gaztetxoak.** | |
| 1. Imanol Rojo | 15.35 |
| 1. Marta Gonzalez | 24.08 |

### TELEFONOAK

**LARRIALDIAK**

112

**Alegialdea.** Osasun z.: 653212
**Anoetaldea.** Medikua: 65 23 39
**Asteasu.** Medikua: 69 24 23
**Berastegi-Elduain.** 68 33 61
**Bidegoian.** Medikua: 68 11 34
**Ibarraldea.** Osasun etx: 672411
**Ikaztegieta.** Medikua: 65 33 29
**Irura.** Osasun zentroa: 69 07 20
**Lizartza.** Medikua: 68 20 77
**Tolosa.**
- Anbulatorioa, larriald:461111
- Asunzion klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdiak)
- Udaltzaingoa: 67 58 58
- DYA: 67 25 36

**Villabona.** Anbulat.: 00 69 70
**Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930

**GUARDIAKO FARMAZIA**

**Gaur.** Bronte. Korreo kalea, 20 (Tolosa). 943 67 30 13.
Gimeno. Elbarren, 52, (Leitza). 112
**Bihar.** Olarreaga, A. Korreo kalea, 2 (Tolosa). 943 67 01 28.
Larraia. Elbarren, 95 (Leitza). 112

**TOLOSALDEKO HITZA**

**Publizitatea.** 661 67 88 18. tolosaldean_publi@tolosaldekohitza.info
**Tolosa.** 687 41 00 82 - 687 41 00 33. tolosa@tolosaldekohitza.info
**Villabona-Aizt.** 687 41 00 22. villabona_aiztondo@tolosaldekohitza.info
**Anoetaldea.** 687 41 00 22 anoetaldea@tolosaldekohitza.info
**Ibarraldea.** 687 41 00 32. ibarraldea@tolosaldekohitza.info
**Alegialdea.** 687 41 00 34. alegialdea@tolosaldekohitza.info
**Leitzaldea.** 687 41 01 18. leitzaldea@tolosaldekohitza.info

### iragarki laburrak

**LANA**

**Sukaldaria.** Tabernarako sukaldaria behar da asteburutan lan egiteko. 943 691 933.
**Ileapaintzailea.** Zute ileapaindegia: esperientzia handia duen neska edo mutil bat behah da. Asteartetik ostiralera: 10:00-18:00. Larunbata: 09:00-14:00. Tfnoa.: 943 671 934.
**Ileapaintzailea.** Langile bat behar dugu ileapaindegian esperientziaduna. Interesatuek deitu: 609 79 27 87.

**SALGAI**

**Autoa.** Ibiza GTTDI (110), 84.000 Km. eta extrarekin. 665 57 07 57.
**Motorra.** Honda NS1 80koa tavi eskapearekin. 665 70 77 57.
**Etxebizitza.** Etxebizitza salgai. Iurre auzoan, 2 logela,egongela, komuna eta sukaldea altzariekin. Erabat berritua. 656 78 23 25.

**Gipuzkoako publizitate enpresa batek komertzialak behar ditu Donostialdean, Tolosaldean, Goierrin eta Oarso-Bidasoaldean (erref.: kom.)**

**Eskaintzen da:**
- Egindako lanaren araberako soldata interesgarria.
- Etorkizuneko proiektu batean parte hartzeko aukera.

**Eskatzen da:**
- Oarso-Bidasoa ingurua lantzeko, ezinbestekoa izango da frantsesez jakitea.
- Izaera dinamikoa izatea eta harremanetarako gaitasuna edukitzea.
- Autoa izatea.

**Kontuan hartuko da:**
- Eskarmentua izatea antzeko lanetan.
- Eskualdea ondo ezagutzea.

Curriculum Vitae zehatza bidali
**gizabaliabideak@jarduna.net POSTA ELEKTRONIKORA edo Jarduna SL Martin Ugalde Kultur Parkea 20140 Andoain HELBIDERA, erreferentzia eta ingurua zehazturik.**

**BERRIAk telemarketin saileko lan poltsa osatu behar du**

**Lanpostuaren ezaugarriak:**
- Helburua telefono bidezko harpidetzak lantzea eta bideratzea da
- Soldata finkoa+komisioak eta lan kontratua

**Kontuan hartuko da:**
- Telemarketin ezagutzak
- Telefono bidezko lanetan esperientzia izatea
- Komertzial arloko ezagutzak
- Hizkuntza abilezia

**Interesdunek gizabaliabideak@jarduna.net helbidera curriculuma bidali, erreferentzia gisa TLMK jarriz**

tolosaldeko eta leitzaldeko
# hitza

**ARGITARATZAILEA:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.
**LEGE GORDAILUA:** SS-0398-03
**ZUZENDARIA:** Joxemi Saizar
**EGOITZA:** Araba etorbidea 5, atzea, Tolosa, 20400
**TELEFONOA:** 943 65 56 95 **FAXA:** 943 65 00 18
**POSTA ELEK.:** tolosaldean@tolosaldekohitza.info
**WEBGUNEA:** www.tolosaldekohitza.info
**TIRADA:** 7.500 ale

BERTAKO HEDABIDEAK eta Tolosaldeko 77 gizarte eragile: (HITZAren enpresan parte hartzeko, deitu 943 65 56 95ra)

**Harpidedunei banatua** ▸ 2004ko azaroaren 14a, igandea ▸ II. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Hernialde, Ibarra, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil. Gipuzkoako Foru Aldundia. Eusko Jaurlaritza. Kultura Saila

GAURKO EGURALDIA goizez arratsaldez beroena **13** hotzena **08**
BIHARKO EGURALDIA goizez arratsaldez

**HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA** (zalantzak, harpide egiteko...) **943 30 43 46**

## AGENDA ▸

### DEIALDIAK

**Baliarrain.** Babarrun eta gaztain-jatea: babarrunak, aza, odolkia, txerri kostila, gazta, irasagarra eta gaztainak. 14:00etan, pilotalekuan.
**Irura.** Ipuin kontaketako ikastaroan izena eman dutenen bilera. Bihar, 20:00etan, udaletxean.
**Tolosa.** Igandero legez, dantzaldia Harizpe jubilatu eta pentsiodunen elkartean (Emeterio Arrese plaza, 2). Iribarren taldearekin, 18:30etik 20:30era.
**Tolosa.** Odol ematea. Bihar, 18:30etik 20:30era, Kultur Etxean.
**Tolosa.** *Cocidito madrileño* antzezlanerako sarrerak salgai. Bihar, 17:15etik aurrera, Kultur Etxean. Lehendabiziko sei erosleei sarrera bana oparituko zaie.

### HITZALDIAK

**Tolosa.** *La comunicacion y la amistad. Claves para una vida sana.* Bihar, 18:30ean, Harizpe jubilatu eta pentsiodunen elkartean (Emeterio Arrese plaza, 2).

### JAIAK

**Amasa.** 11:30ean, herri kirolak: idia eta behorra elkarren aurka; 17:00etan, herri kirolak herriko gazteen eskutik; jarraian, Nazabal eta Arrospide aizkolariak, eta Izeta eta Landarbide harri-jasotzaileak; 24:00etan, XV. Intxorraren aldaketa.

### KULTUR ASTEA

**Berastegi.** 09:00etan, Plazaola eta Bizkotx mendietara irteera eta argazki rallyaren hasiera, herriko plazatik; 16:00etan, mus txapelketa; 19:30ean, kontzertua Donato Goienetxe eta Agurtzane Elustondoren eskutik.

### ZINEMA

**Tolosa.** *Mar adentro.* 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean, Leidorren. Bihar eta etzi (Ikuslearen Eguna), 19:30ean eta 22:30ean.

## ZORION AGURRAK ▸




**HITZA, zorion agurren tartea**
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:
HITZAren egoitzara:
Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA
Udaletxeko bulegoa - LEITZA
Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!



**ZORIONAK**
**Jaione Zabala.** Ondo igaro zure urtebetetze eguna.






**URTE ASKOAN**
**Iñaki Apalanza Matxain (Ibarra).** Gaur 8 urte. Zorionak eta muxu handi bat familia osoaren partetik.



**URTE ASKOAN**
**Egoitz.** Gaur 6 urte. Zorionak Itoitzen, Enekoren eta familiaren partetik.



**ZORIONAK**
**Leyre Usandizaga (Asteasu).** Gaur 26 urte. Etxekoen partetik. Ea gutaz oroitzen zaren...





Orain Tolosan:
**SHUYANA**
Eskolapioetako Loralegiak, 3
20400 Tolosa • Tel.: 943.675.489

Laserraren **plazerra** probatu

Esperientziadun adituen eskuetan jar zaitez eta zure azalaren leuntasunaz goza ezazu.

Gizon-Emakume depilazioa •
Aurpegi eta Gorputzekoa •
Ileak sortutako infekzio arazoak •
Diagnostiko informatizatua doan •
Bakoitzari egokitutako finantziaketa •

Shuyana, Depitotal sarearen parte da, bertan 200 depilazio zentru baino gehiago daude. www.depitotal.com